



ZALDIBIAKO UDALA
ALKATETZA
(Gipuzkoa)

COVID-19 KORONABIRUSAREN ZABALPENA EKIDITEKO Zaldibiako Udalak hartutako neurriak 2020-03-12an

1. Herritarrak informatu:

- Bando bidez unean uneko neurrien inguruko informazioa zabalduko da.
- Osakidetzak emaniko prebentzio neurri eta gomendioen zabalpena egingo da bando bidez, eraikin publiko guztietan eta kaleko kortxoetan.
- Komun publikoetan garbiketa indartuko da eta eskuak garbitzeari buruzko azalpena jarri da.
- Web gunean eta sarean prebentzio neurriak eta gomendioak jarri dira, baita Udalaren bestelako sare sozialetan ere. Mugikor bidez ZaldibiAPP aplikazioaren bidez azken ordua jarraitu ahal izango da.

2. Eraikin publikoak:

- Martxoaren 13tik aurrera (ostirala) eta Hezkuntza gunek (Haurreskola, Herri Eskola) itxeko dekretua aintzat hartuz, **HAINBAT UDAL ERAIKIN ITXI eta JENDAURREKO ZERBITZUAK BERTAN BEHERA** geratuko dira epealdi berean: **Karreane Kultur Etxea, Kimuene Kulturgunea, Herri Antzokia eta Luberriko gimnasioa.**
- **Beti Gazte Ostata momentuz zabalik** mantenduko da, taberna zerbitzuan. Beti Gazte Elkarteak bere ekintzak aztertuko ditu, batzuk atzeratu edo bertan behera utziz, arrisku taldea diren heinean. Giza-talde honi gune itxietan eta taldean ibiltzea saihestea gomendatzen zaie.
- **UDALETXEA IREKITA** dago momentuz, baina ahal dela aurrez aurrekoa saihestea eskatzen da, telefono bidezko harremana lehenetsiz (943 88 03 57). Gogoratu tramite ofizialak on-line egiteko aukera duzuela www.zaldibia.eus atarian.

3. Ekitaldi publikoak eta Jarduerak:

- Asteburu honetako **Goierri Rallysprinta** eta bezperako erakusketa eta puzgarriak **atzeratuta** geratu dira data jakinik ezarri gabe.
- **Haur ekintzak eta eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera** utziko dira Herri Eskola itxita dagoen artean: Musika Eskola, Eskola Kirola, ... **Adinekoei zuzendutako soinketa ere bertan behera** geratzen da.
- Kultur Sailarekin datozen egunetako agenda aztertu eta gomendioak jarraituko dira, beharrezko bada eta kasuan kasu ekitaldiak saihestu, atzeratu edo bertan behera utziz.

4. Udal Langilegoa:

- **Udal langilegoak ohiko lanari eutsiko dio**, gomendio eta prebentzio neurri orokorrak jarraituz.
- **Jendaurreko lanpostuetan garbiketa neurriak** hartzeko protokoloa landu da eta datozen egunetan egoeraren arabera neurri gehiago aztertuko dira.

5. Osasun-Zerbitzua:

- Herriko egoerari jarraipena egiteko herriko zerbitzu medikua eta Udalaren arteko komunikazio bide iraunkorra zabaldu da.

Zaldibian, 2020ko martxoaren 12an



ZALDIBIAKO UDALA
ALKATETZA
(Gipuzkoa)

KORONABIRUSA

ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA
BABESTEKO?



1 ESKUAK SARRITAN
GARBITU.



2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN,
ESTALI AHOA ETA SUDURRA
UKONDOAREKIN EDO ZAPI BATEKIN.

BOTA ZAPIA BEREHALA ETA GARBITU
ESKUAK ALKOHOL-OINARRIA DUEN
ESKUETAKO DESINFEKTATZAILE
BATEKIN EDO UR ETA XABOIAREKIN.



3 MANTENDU METRO BATEKO TARTEA,
GUTXIENEZ, EZTUL EDO DOMINISTIKU
EGITEN DUTEN EDO SUKARRA DUTEN
PERTSONENGANDIK.



4 EZ UKITU BEGIAK,
SUDURRA ETA AHOA.



5 ETXEAN ETA LEKU PUBLIKOETAN
ESKUEKIN UKITZEN DIREN GAINAZALEN
GARBIKETA AREAGOTU.



OSAKIDETZA ETA
OSASUN SAILAREN WEB ORRIETAN



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO